

# GUJARAT

## EMAKUME ADIVASIEK AHALDUNTZEA HEZKUNTZA KUALIFIKATUAREN BIDEZ

Emakume adivasiek eginkizun garrantzitsua dute herrialdearen garapenean, baina haien ahalmena ez da behar adina kontuan hartzen, eta hezkuntzaren bidez soilik lortuko da ezagutzera ematea. Emakumeei, ordea, zaila zaie hezkuntza formalean sartzea.

Hori dela eta, Lanbide Hezkuntzako Komunitate Zentroak aukera bihurtzen dira gizarte-egoera ahuleneko pertsonentzat eta, gainera, jatorria komunitatean duen hezkuntza horren bidez, lanerako hezkuntza osoa jasotzen dute.

Eta, hain zuzen ere, Vidhyadeepeko eskolan, emakumeei lana aurkitzeko baliagarri izango zaizkien lanerako trebetasunak emateaz gain, bizitzaren erronkei herritar arduratsu gisa aurre egiteko prestatzen ere saiatzen dira.

### ***Nola laguntzen du ALBOANek egoera hori hobetu dadin?***

- Emakumeak ahalduntzeko ikastaroa. Landa-eremuetako emakumeei eragiten dieten hainbat gai buruzko ezagutzak ematen dira; besteak beste, osasuna, garbitasuna, ingurumena eta gizarte-gaiak. Lege-arloko gai batzuei buruzko heziketa ere jasotzen dute (adibidez, emakumeen eskubideei eta tokiko gobernuaren eginkizunei buruzkoak), eta diru-sarrerak sortzeko trebetasunak ere irakasten zaizkie.

- Jantzigintzari buruzko ikastaro aurreratua eginez.


- Osasun komunitarioaren sustatzaile izateko ikastaroa sustatuz.

- Administrazio-ikastaroa antolatuz.



- Informatika- eta ingeles-ikastaroak kudeatuz.

- Ikastaroak osatzen dituzten hainbat tailer burutuz, besteak beste: nekazaritza, adivasien izaera eta kultura, eta nortasuna lantzea.



Emakumeak Indian garapenaren eragile  
Mujeres en India Motor de desarrollo

HAUNDIAGOTUTAKO ERREALITATEa sartu

layar app-ren bidez



ALBOAN

Accede a REALIDAD AUMENTADA con la app

layar